



Deabruaren Oinaren Abentura

ARTHUR CONAN DOYLE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Deabruaren Oinaren Abentura

itzulpena:

Garaine Hernandez Huidobro

zuzenketa:

Asier Alluntis Etxabe

maketazioa:

Xabier Sanchez Fuentes

Noizean behin, Sherlock Holmes lagun minarekin bizi izandako esperientzia bitxiak eta oroitzapen interesgarriak kontatzen saiatzen naizenean, askotan arazoekin topo egiten dut, berari ez zaiolako batere gustatzen bere kontuak jendaurrean zabaltzea. Bere izaera ilun eta zinikoarentzat, jendearen txaloak beti ziren nazkagarriak, eta ez zion ezerk hainbeste atsegin ematen kasu arrakastatsu baten amaieran egia argitzea agintari ofizial ortodoxoren baten esku uztea baino, eta irribarre ironiko batekin koru orokorraren lekuz kanpoko zorionak entzutea. Izan ere, nire lagunaren aldetik portaera hori izan da azken urte hauetan bere kontakizunak gutxi argitaratzearen arrazoia, eta ez istorio interesgarrien falta. Bere abenturetako batzuetan parte hartzea beti zen pribilegio bat niretzat, zeinak zuhurtzia eta mesfidantza eskatzen zizkidan.

Orduan, sorpresa handiarekin jaso nuen Holmesen partetik telegrama bat joan den asteartean—ez baitzuen inoiz gutunik idazten, telegrama bat erabil zezakenean—honako hitz hauekin:

Zergatik ez diezu kontatzen Cornwallen gertatutako kasu beldurgarria—inoiz ikertu dudana kasurik bitxiena.

Ez dakit iraganeko zein oroitzapenek ekarri zioten kontua berriro burura, ezta zerk bultatu zuen nik berriro kontatzea nahi izatera ere; baina, beste telegrama bat atzera egiteko agindu aurretik, presaka ari naiz kasuaren xehetasun zehatzak jasotzen dituzten oharrak bilatzen, eta nire irakurleei kontakizuna aurkezten.

1897. urteko udaberrian izan zen, orduan, Holmesen gorputz sendoak ahultasun seinale batzuk erakusten hasi zela, etengabeko lan gogor eta zorrotzaren ondorioz, agian bere noizbehinkako gehiegikeriak eraginda. Urte hartako martxoan, Harley Streeteko Moore Agar medikuak, zeinaren Holmesekin izan zuen aurkezpen dramatikoak noizbait kontatuko dudana, argi eta garbi agindu ikertzaile pribatu ospetsuari bere kasu guztiak alde batera utz zitzala eta atsedean har zezan, erabateko kolapsoa sahiestu nahi bazuen. Bere osasunaren egoerak ez zion inolako intesa pizten, bere adimen-urruntasuna erabatekoa zelako. Hala ere, azkenean, lanetik betirako kaporatuko zutela mehatxupean, erabateko ingurune-aldaketa egitea onartu zuen. Horrela, urte hartako udaberri hasieran, Poldhu badia inguruko landa-etxe batean geunden, Cornwalleko penintsularen muturrean.

Leku berezia zen, eta bereziki ondo zetorren nire pazientearen umore beltzarekin. Belarrez estalitako lurmutur baten gainean zegoen gure etxe txiki zurixkaren leihoetatik, Mounts badia osoa ikusten genuen; aspalditik belaontzientzat heriotza-tranpa izandako lekua, haitz beltzez eta olatuek jotako arrezifez inguratua, non marinel askok galdu duten bizia. Ipar-haizearekin, ordea, lasaia eta babestua dirudi, ekaitzak astindutako ontziak atseden eta babes bila bertara erakarriko balitu bezala.

Orduan etorri zen haizearen bat-bateko zurrunbiloa, hego-mendebaldeko ekaitz zakarra, ainguraren arrastatzea, haizepeko kostaldea, eta azken borroka olatuen aparretan. Itsasgizon zentzudunak urrun mantentzen dira leku arrikutsu horretatik.

Lurreko aldean ere, gure ingurua itsasaldekoa bezain iluna zen. Muino eta zelaien lurralde bat zen, bakarti eta gris kolorekoa, noizean behin eliza-dorre batek antzinako herrixka baten aztarna erakusten zuela. Muino horietan norabide guztietan desagertutako herri baten arrastoak ikus zitezkeen, erabat galdu eta desegin zen batenak: harri-monumentu bitxiak, hildakoen errauts erreak gordetzen zituzten tumulu irregularrak, eta historiaurreko gatazkak iradokitzen zituzten lur-lan bitxiak. Lekuaren xarma eta misterioak, ahaztutako herrien giro ilunarekin batera, maltzurra zuena, nire lagunaren irudimena erabat erakartzen zuten, eta denbora asko ematen zuen muinoetan ibilaldi luzeak eta bakarkako gogoetak egiten. Kornualleseko hizkuntza zaharrak ere arreta deitu zion, eta, gogoan dudanez, beroaren antzekoa zela eta eztainguko merkataria feniziarrengandik zetorrela ondorioztatu zuen. Filologiari buruzko liburu-bidalketa bat jaso zuen, eta tesi hori garatzera zihoan, baina bat-batean, nire nahigaberako eta bere benetako gozamenerako, ametsezko lurralde hartan ere, geure etxeke ateetan arazo batean murgilduta ikusi genuen elkar, Londrestik alde egitera bultzatu gintuzten guztiak baino biziagoa, liluragarriagoa eta misteriotsuagoa. Gure bizitza xumea eta gure errutina baketsu eta osasungarria bortizki eten ziren, eta Kornuallesen ez ezik Ingalaterrako mendebalde osoan ere ikusminik handiena eragin zuten gertaera sail baten erdian erori ginen. Nire irakurle askok, beharbada, une hartan "Kornuallesko izugarrikeria" deitu zenaren oroitzapenen bat gordeko dute, nahiz eta Londresko prentsari gaiaren kontakizun osatugabea heldu zitzaion. Orain, hamahiru urteren buruan, kontu pentsaezin honen benetako xehetasunak emango dizkiot jendeari.

Esan dut dorre sakabanatu batzuek markatzen zituztela Kornuallesko alde hau ziprztintzen zuten herriak. Haien artean hurbilena Tredannick Wollas herrixka zen, non berrehun biztanle inguruko etxetxoak goroldioz estalitako antzinako eliza baten inguruan biltzen baitziren. Parrokiako erretorea, Roundhay jauna, arkeologo moduko bat zen, eta horrela adiskidetu zen Holmes berarekin. Adin ertaineko gizona zen, handia eta adeitsua, bertako jakintzaz hornitua. Hark gonbidatuta, bikarioran hartu genuen tea, eta Mortimer Tregennis jauna ere ezagutu genuen, jaun independente bat, apaizaren baliabide urriak handitzen zituen bere etxe zabal eta desordenatuan gelak alokatuz. Bikarioa, ezkongabea zenean, poztu egin zen halako adostasunera iristeaz, nahiz eta ez zuen batere zerikusirik bere maizterrearekin, gizon argal, beltzaran eta betaurrekoduna baitzen, konkor batekin, benetako itxuragabekeria fisikoa zirudiena. Gogoan dut gure bisitaldi laburrean bikarioa berritsua zela iruditu zitzaigula, baina bere maizterra bitxiki isila, aurpegi triste eta introspektiboa zuen gizon bat, begirada apartatua zuena, itxuraz bere arazoetan murgildua.

Bi gizon hauek izan ziren asteartean, martxoaren 16an, gure egongela txikira bat-batean sartu zirenak, gosaria amaitu eta gutxira, elkarrekin erretzen ari ginela, muinoetara egunero egiten genuen irteerarako prestatzen.

“Holmes jauna” esan zuen apaizak ahots urduri batean, “gau honetan gertakari oso berezi eta tragiko bat izan da. Sekula ikusi gabeko kontua da. Zoragarria da zu hemen egotea, Ingalaterra osoan lagundu gaitzakeen bakarra zarelako.”

Apaiz muturluzeari ez nion begirada atseginarekin begiratu; baina Holmesek pipa ahotik kendu eta aulkitik altxatu zen, ehiza-txakur batek “view-halloa” entzuten duenean bezala. Sofara egin zuen keinu eskuzabal bat, eta gure bisitari urduriak, bere lagun asaldatuarekin batera, han eseri ziren. Mortimer Tregennis jauna apaiza baino kontserbatuagoa zen, baina bere esku meheen dardarak eta begi ilunetako distirak erakusten zuten emozio bera partekatzen zutela.

“Nik hitz egingo dut ala zuk?” galdetu zion apaizari.

“Beno, dirudienez aurkikuntza egin duzu, eta apaizak bigarren eskutik jakin duenez, agian hobe duzu zuk hitz egitea” esan zuen Holmesek.

Presaka jantzitako elizgizonari begiratu nion, gonbidatuarekin, galazko arropaz jantzita, ondoan eserita, eta Holmesen ondorio xumeak aurpegietan marraztutako harridurak grazia egin zidan.

“Agian hobe izango da lehenik hitz batzuk esatea” esan zuen bikarioak, “eta gero erabaki ahal izango dute Tregennis jaunaren xehetasunak entzun nahi dituzten edo ez berehala gertaera misteriotsu honen lekura jo behar dugun. Azalduko dizuet, beraz, gure lagunak bere bi anaiekin, Owen eta Georgerekin, eta bere arreba Brendarekin, igaro zuela atzoko gaua Tredannick Warthako bere etxean, paramoko harrizko gurutze zaharretik hurbil. Hamarrak pasatxo utzi zituen, jantokiko mahaiaren inguruan kartetan ari ziren bitartean, osasuntsu eta adoretu. Gaur goizean, goizekoa denez, gosaldu aurretik oinez joan da harantz, eta Richards medikuaren zalgurdiak harrapatu du. Hark azaldu dio Tredannick Warthara joateko premia handiz deitu diotela. Mortimer Tregennis jaunak lagundu egin zion, noski. Tredannick Warthara iritsi zenean, aparteko egoera aurkitu zuen. Bi anaiak eta arreba mahaiaren inguruan eserita zeuden, utzi zituen bezalaxe, kartak haien aurrean sakabanatuta eta kandelak zorroraino beteta. Arreba hilda zetzan, harri bat bere aulkian bezala, eta bi anaiak haren alde banatan esertzen ziren, barrez, oihuka eta kantuan, zentzumenak zeharo aldatuta. Hirurek, hildako emakumeak eta erotuta zeuden bi gizonak, beren aurpegietan ikaragarriko ikararen itxura gordetzen zuten: izu-asaldura bat, begiesteko beldurgarria. Ez Mrs. Porter aztarna soilik zegoen etxean, ez beste inorena, sukaldari eta giltzain zenak, lo sakona egin zuela eta gauean zaratarik entzun ez zuela adierazi zuen. Ez zen ezer falta eta ez zegoen ezer desordenaturik, eta ez dago inolako azalpenik emakume bat hiltzeraino ikaratu eta bi gizon indartsu bere onetik atera zituena zein izugarrikeria izan zitekeen azaltzeko. Hori da egoera, Holmes jauna, hitz gutxitan esanda, eta argitzen lagundu ahal badiguzu, lan handia egingo zenuke”.

Espero nuen, nolabait, nire bidelaguna konbentzitzea gure bidaiaren helburua zen lasaitasunera itzul zedin; baina, bere aurpegi biziari eta bekain zimurtuei begiratuta, argi

ikusi nuen nire itxaropena alferrikakoa zela. Isilean egon zen une batez, gure bakea hautsi zuen drama bitxi hartan murgilduta.

“Auzi hau aztertuko dut” esan zuen azkenean. “Lehen begiratuan, badirudi izaera oso bereziko kasu bat dela. Han izan al zara, Roundhay jauna?”

“Ez, Holmes jauna. Tregennis jaunak bikario-etxera eraman zuen txostena, eta nik berehala lagundu nion, zuri kontsulta egiteko.

“Zer distantziatara dago tragedia bitxi hau gertatu zen etxea?”

“Barnealdean mila bat metrora”.

“Orduan, elkarrekin joango gara; baina, abiatu aurretik, hainbat galdera egin behar dizkizut, Mortimer Tregennis jauna”.

Bestea isilik egon zen denbora guztian, baina iruditu zitzaidan haren zirrara kontrolatua apaizaren emozio nabaria baino are handiagoa zela. Aurpegi zurbil eta estuarekin eserita zegoen, begirada urduria Holmesengan finkatuta, eta esku meheak elkarri estu lotuta. Ezpain zurbilak dardarka zituen bere familiari gertatutako esperientzia ikaragarria entzuten zuen bitartean, eta begi ilunek eszenaren izua islatzen zutela zirudien.

“Galdetu nahi duzuna, Holmes jauna” esan zuen irrikaz. “Ez da kontu atsegina, baina egia esango dizut”.

“Esadazu bart gauean zer gertatu zen”.

“Beno, Holmes jauna, han afaldu nuen, bikarioak esan duen bezala, eta ondoren nire anaia zaharrenak, Georgek, whist-partida bat jokatzea proposatu zuen. Bederatziak aldera eseri ginen. Hamarrak eta laurden ziren alde egiteko jaiki nintzenean. Denak mahaiaren inguruan utzi nituen, egon daitekeen bezain alai”.

“Nork utzi zaitu irteten?”

“Porter andrea ohera joana zen, beraz, atera nintzen. Atea itxi nuen nire atzetik. Eserita zeuden gelako leihoa itxita zegoen, baina pertsiana ez zegoen jaitsita. Gaur goizean ez zen aldaketarik atean ez leihoan, eta ez zegoen arrazorik pentsatzeko ezezagunik etxera sartu zenik. Hala ere, han zeuden eserita, beldurrez erotuta, eta Brenda beldurrez hilda zegoen, burua aulkiaren besoaren gainera erorita. Inoiz ez dut ahaztuko gela hartan ikusitakoa”.

“Gertaerak, zuk diozun moduan, oso harrigarriak dira, zalantzarik gabe” esan zuen Holmesek. “Ulertzen dut ez daukazula horiek azaltzeko teoriarik?”

“Deabruaren lana da, Holmes jauna, deabruarena!” esan zuen oihuka Mortimer Tregennisek. “Ez da mundu honetakoa. Zerbait sartu da gela horretan eta burua nahastu die. Giza trikimailuren batek egin al dezake halakorik?”

“Beldur naiz auzia gizadiaren gainetik badago, nire eskuetatik kanpo ere badagoela” esan zuen Holmesek. Hala ere, lehenik azalpen natural guztiak aztertu behar ditugu. Zure kasuan, Tregennis jauna, badirudi nolabait zure familiarengandik bananduta zeundela, haiek elkarrekin bizi baitziren eta zuk gelak aparte baitzenituen?”

“Hala da, Holmes jauna, nahiz eta hori dagoeneko iraganeko kontua den. Ezta inu-meatzari familia bat ginen Redruthen, baina gure enpresa sozietate bati saldu genion eta erretiratzeko adina lortu genuen. Ez dut ukatuko dirua banatzeagatik nolabaiteko erresumina sortu zela eta horrek tarte batez banandu gintuela, baina dena barkatu eta ahaztu egin zen, eta berriro ere lagun minak izan ginen”.

“Elkarrekin igarotako arratsalde hura gogoratzean, ba al dago ezer deigarririk edo tragedia honi argia eman diezaiokeen zerbait? Ondo pentsatu, Tregennis jauna, lagungarri izan daitekeen edozer”.

“Ez dago ezer, jauna”.

“Zure jendea ohiko umore onean zegoen?”

“Inoiz baino hobeto”.

“Urduriak al ziren? Inoiz beldur izan al ziren etorriko zen arriskuaz?”

“Inola ere ez”.

“Orduan ez duzu niri lagundu diezadakeen ezer?”

Mortimer Tregennisek une batez serio pentsatu zuen.

“Bada bururatzen zaidan zerbait” esan zuen azkenean. Mahaian eserita geundela, bizkarra leihora zuzenduta neukan, eta nire anaia George, nire karta jolaskidea zena, leihoari begira zegoen. Behin sorbaldaren gainetik begiratu zidan, nik ere biratu eta begiratu egin nuen. Pertsiana igota zegoen eta leihoa itxita, baina nekez bereizten nituen lorategiko zuhaixkak. Une batez iruditu zitzaidan haien artean zerbait mugitzen ari zela”.

“Ez zenuten ikertu?”

“Ez, kontua garrantzirik gabekoa iruditu zitzaigun”.

“Beraz, ez zenuten susmatzen zerbait txarra gerta zitekeenik?”

“Inondik inora”.

“Ez dut argi nola jakin duzuen gaur goizean hain goiz berria”.

“Goiztiarra naiz, eta paseo bat eman ohi dut gosaldutik aurretik. Gaur goizean oinez hasi orduko, medikuak aurreratu nau bere zalgurdian. Esan dit Porter andre zaharrak mutil bat bidali duela premiazko mezu batekin. Haren ondora igo naiz eta gure bideari jarraitu diogu. Iritsi garenean, begiratu bat eman diogu gela ikaragarri hari. Antza, kandelak eta sua ordu batzuk lehenago itzali dira, eta seguruenik ilunpetan eserita egon dira eguna argitu arte. Medikuak esan du Brenda gutxienez sei orduz hilda egon dela. Ez da indarkeria arrastorik. Besaulkiaren besoaren gainean etzanda dago, aurpegian espresio hori duela. George eta Owen kantu zatiak kantatzen eta bi tximino handiren moduan marmarka egon dira. Ai, ikusteko ikaragarria izan da! Ezin izan dut jasan, eta medikua papera bezain zurbil egon da.

Izan ere, aulki batean erori da, ia konortea galduta, eta guk bera ia-ia besoetan izan behar izan dugu”.

“Aparta, benetan aparta!” esan zuen Holmesek, altxatuz eta kapela hartuz. “Uste dut hobe izango dugula Tredannick Wartharengana lehenbailehen joatea. Aitortzen dut gutxitan ikusi dudala lehen begiratuan arazo bereziagorik sortzen duen kasurik”.

Goiz hartako gure jardunak ez zuen askorik lagundu ikerketan aurrera egiten. Hala ere, hasieratik bertatik gertaera batek markatu zuen eta zirrara ikaragarria eragin zidan. Tragedia gertatu zen lekura iristeko landa bide estu eta bihurturik batetik joan behar da. Handik gindoazela, zalgurdi baten hotsa entzun genuen gure aldera zetorrela, eta alde batera egin genuen pasatzen uzteko. Gure ondotik igarotzean, leiho itxiaren bidez aurpegi izugarri desitxuratu eta irribarretsu bat ikusi nuen guri begira.

“Nire anaiak!” oihukatu zuen Mortimer Tregennisek, ezpainak zurbilik. “Helstonera eramaten ari dira”.

Izu handiz ikusi genuen nola urruntzen zen zalgurdi beltza. Gero, gure pausoak zori txarreko etxe hartara bideratu genituen, non patu bitxi hartara eraman gintuen.

Etxe handi eta argitsua zen, ez landa-etxola arrunta, lorategi handia zuena, eta Kornuallesko aireari esker udaberriko lorez bete zegoen jada. Lorategi horretara ematen zuen egongelako leihoak, eta, Mortimer Tregennisen arabera, handik zetorren gauza gaizto hura, bere izugarrikeria hutsarekin une bakar batean haien buruak hondatu zituen. Holmes astiro eta pentsakor ibili zen loreen artean eta bidetik portxera sartu aurretik. Hain zegoen murdgilduta bere pentsamenduetan, zein ureztagailuarekin estropezu egin zuen, ura isuri eta gure oinak eta lorategiko bidea busti zituen. Etxe barruan, Kornuallesko ethezain zaharrak hartu gintuen, Porter andreak, zeinak neska gazte baten laguntzaz familiaren beharrak zaintzen zituen. Azkar erantzun zien Holmesen galderei. Gauean ez zuen ezer entzun. Bere nagusiak azken aldian umore bikainean zeuden, eta ez zituen inoiz hain alai eta ondo ikusi. Goizean gelara sartu eta mahaiaren inguruko konpainia ikaragarri hura ikustean, izuaren eraginez zorabiatu zen. Bere

onera etorri zenean, leihoa ireki zuen goizeko airea sartzeko, eta korrika jaitsi zen bidera; handik baserriko mutil bat bidali zuen medikuaren bila. Andrea goian zegoen, bere ohean, nahi izanez gero ikusteko moduan. Lau gizon indartsu behar izan zituzten anaiak eroetxeko zalgurdira sartzeko. Berak ez zuen etxean egun bat gehiago geratu nahi, eta arratsalde hartan bertan St. Ives-era joateko asmoa zuen bere familiarekin berriz elkartzeko.

Eskailerak igo eta gorpuari begiratu genion. Brenda Tregennis andereñoa oso neska ederra izan zen, nahiz eta jada adin ertainekoa izan. Haren aurpegi ilun eta ondo zehaztua ederra zen, baita heriotzan ere, baina oraindik ere antzematen zitzaion bere azken giza emozioa izan zen izu-krisi haren aztarna. Bere logelatik egongelara jaitsi ginen, han gertatu baitzen tragedia bitxi hura. Aurreko gaueko suaren errauts ikaztuak tximinian zeuden. Mahai gainean lau kandela zeuden erreta, eta kartak gainazal osoan sakabanatuta. Aulkiak pareten kontra eramanda zeuden, baina gainerakoa aurreko gaueko moduan zegoen. Holmes gelan zehar ibili zen pauso arinez; aulki desberdinetan eseri, haiek mugitu eta beren kokapena berreraiki zuen. Lorategitik zenbat ikus zitekeen egiaztatu zuen, zorua, sabaia eta tximinia aztertu zituen, baina inoiz ez nuen ikusi bere begien bat-bateko distira edo ezpainen estutzea, iluntasun hartan argi-izpi bat aurkitu izan balu bezala.

“Zergatik sute bat?” galdetu zuen behin. “Beti al zuten sute bat gelatxo txiki horretan, udaberri arratsalde batean?”.

Mortimer Tregennisek azaldu zuen gaua hotza eta hezea zela. Horregatik, iritsi bezain laster, tximinia piztu zuten. “Zer egingo duzu orain, Holmes jauna?” galdetu zuen.

Lagunak irribarre egin eta eskua nire besoan jarri zuen. “Uste dut, Warson, berriro ekingo diodala tabakoa erretzeari lotutako ohitura horri, zuk hain maiz gaitzetsi duzunari” esan zuen. “Zuen baimenarekin, jaunak, orain gure landetxera itzuliko gara, ez baitut uste hemen guretzat interesgarria den datu berririk sortuko denik. Gertakariez hausnartuko dut,

Tregennis jauna, eta zerbait bururatzen bazait, zurekin eta bikarioarekin harremanetan jarriko naiz. Bien bitartean, egun on biei.

Poldhu Cottage-ra itzuli eta handik gutxira hautsi zuen Holmesek bere erabateko isiltasuna. Bere besaulkian eserita zegoen, tabako-ke urdinaren artean ia ikusten ez zen aurpegi zorrotz eta larriarekin, bekain beltz zimurtuak eta kopeta zimurtua nabarmenduta, begirada galdu eta urrunarekin. Azkenean, pipa utzi eta jauzi batez altxatu zen.

“Ez du balio, Watson!” esan zuen barrezka. “Goazen elkarrekin labarretan barrena eta bila ditzagun silex geziak. Errazago aurkituko ditugu arazo honen aztarnak baino. Garuna material nahikorik gabe lan egiten uztea motor bat lasterka uztea bezalakoa da. Apurka-apurka hondatu egiten da. Itsasoko airea, eguzkia eta pazientzia, Watson— gainerakoa berez etorriko da.

“Orain, definitu dezagun patxadaz gure jarrera, Watson” jarraitu zuen labarren artean ibiltzen ginen bitartean. “Eutsi irmo dakigun apurrari, eta datu berriak agertzen direnean, prest egon gaitzen horiek beren lekuan jartzeko. Ulertzen dut, lehenik, bietako inor ez dagoela prest giza arazoetan deabruzko esku-hartzea onartzeko. Has gaitzen hori erabat baztertzen. Oso ondo. Hiru pertsona daude giza ekintzaren batek larriki kaltetu dituenak, kontzienteki edo inkontzienteki. Hori oinarri sendoa da. Baina noiz gertatu zen hori? Jakina, Mortimer Tregennis jauna gelatik irten eta berehala izan zen, bere istorioa egia zela suposatuz. Hori oso garrantzitsua da. Minutu batzuk geroago izan zela uste da. Kartak mahai gainean zeuden. Oherako ordua igaroa zen. Hala ere, ez ziren lekuz aldatu eta ez zituzten aulkiak atzera bota. Berriro diot, joan eta berehala gertatu zela, eta ez atzo gaueko hamaikak baino beranduago.

Gure hurrengo urrats logikoa, ahal den neurrian, gelatik irten ondorengo Mortimer Tregennisen mugimenduak egiaztatzea da. Horrek ez du inolako zailtasunik sortzen, eta susmo guztien gainetik daudela dirudi. Nire metodoak ezagutzen dituzun bezala ezagututa, konturatuko zinen, noski, trikimailu trakets samar bat egin nuela ur-pitxerrarekin, eta horren

bidez beste era batera egin nezakeena baino aztarna garbiagoa lortu nuela. Bide heze eta hareatsuak bikain gorde zuen aztarna. Bart ere euria egin zuen, gogoratuko duzunez, eta ez zen zaila izan — behin arrastoa hartuta — bere arrastoa besteen artean bereiztea eta bere mugimenduak jarraitzea. Badirudi azkar joan zela erretore-etxera.

“Beraz, Mortimer Tregennis eszenatik desagertu bazen eta, hala ere, jokalariengan haiengandik kanpoko norbaitek eragin bazuen, nola berreraiki dezakegu pertsona horren irudia eta nola transmititu zen izugarrikeriaren inpresio hori? Porter andrea baztertu dezakegu. Argi dago berak ez duela arriskurik. Ba al dago frogarik norbait lorategiko leihora isil-isilik hurbildu eta, nolabait, ikusi zutenei adimena galarazteko moduko efektu beldurgarria eragin izanaren frogarik? Mortimer Tregennisek berak eman zuen aztarna bakarra, bere anaiak lorategiko mugimenduren bati buruz hitz egin zuela esanez. Hori benetan nabarmena da, gaua euritsua, lainotsua eta iluna baitzen. Pertsona horiek larritzeko asmoa zuen edonork bere aurpegia kristalaren kontra itsatsi beharko zuen ikusi aurretik. Lore-ertz bat dago leiho honetatik kanpo, metro bateko zabalerakoa, baina ez dago aztarnarik. Zaila da, beraz, imajinatzea nola arrotz batek halako zirrara ikaragarria eragin ahal izan zuen lagunartean, eta ez dugu arrazoirik aurkitu hain saio arraro eta landua egiteko. Ulertzen al dituzu gure zailtasunak, Watson?”.

“Bistakoak baino gehiago dira” erantzun nuen, ziur.

“Eta, hala ere, informazio apur bat gehiagorekin, gaindiezinak ez direla erakuts genezake” esan zuen Holmesek. “Imajinatzen dut zure artxiboen artean, Watson, ia ulertezinak diren batzuk aurkituko dituzula. Bitartean, kasua alde batera utziko dugu datu zehatzagoak izan arte, eta goizeko gainerako orduak gizaki neolitikoaren bila emango ditugu”.

Agian inoiz aipatu izan dut nire adiskidearen adimen-urruntasunaren gaitasuna, baina inoiz ez nintzen harritu udaberriko goiz hartan Kornuallesen bezala, bi orduz zeltei, gezi puntei eta zeramika zatiei buruz hitz egin zuenean bezain naturaltasunez, misterio txundigarririk ez balego bezala. Arratsaldean etxetxora itzuli ginen arte, bisitari bat aurkitu genuen gure zain, eta berehala jarri zigun arreta gure gaiari. Ez batak ez besteak ez zuten

bisitari hori nor zen esateko beharrik. Gorputz handia, zimur sakonez jositako aurpegi zimurtsua, begi basatiak eta belatz-sudurra zituena, gure txabolaren sabaia ia ukitzen zuen ile urdindua, bizarra — urreztatua ertzetan eta zuria ezpainenatik hurbil, bere betiko zigarroaren nikotina-orbanagatik izan ezik — Londresen Afrikan bezain ezaguna zen, eta lehoi ehiztari eta esploratzaile handia zen Leon Sterndale medikuaren nortasun ikaragarriarekin baino ezin zitekeen lotu.

Eskualdean zegoela entzuna genuen, eta behin edo bitan ikusi genuen haren irudi garaia bidezidor motzetan. Hala ere, ez zigun ezer aurreratu, eta ez genukeen halakorik egingo, jakina baitzen bere bakardadearekiko zaletasunak bultzatu zuela bidaien arteko tarte gehienak Beauchamp Arrianceko baso bakartian lurperatutako bungalow txiki batean igarotzera. Hemen, bere liburu eta mapetan, bizitza erabat bakartia bizi zuen, bere premia xumeei jaramon eginez eta auzokoen arazoei itxurazko jaramon gutxi eginez. Ustekabea izan zen, beraz, Holmesi ahapeka galdetzen entzutea ea aurrerabiderik egin ote zuen gertaera misteriotsu haren berreraikuntzan. "Konderriko poliziak erabateko errua du", esan zuen, "baina agian zure esperientzia zabalagoak azalpen bururagarriren bat iradoki du. Zure konfiantzan sartzeko dudan asmo bakarra da, hemen bizi izan naizen bitartean, Tregennisen familia hau oso ondo ezagutzera iritsi naizela—are gehiago, nire ama kornubiarraren aldetik lehengusu dei niezaieke—, eta haien patu bitxia, berez, zirrarra handia izan dela niretzat. Esan diezazuket Plymouthera iritsi naizela Afrikarako bidean, baina albistea gaur goizean iritsi zait, eta berehala itzuli naiz berriro ikerketan laguntzera.

Holmesek bekainak altxatu zituen.

“Zure ontzia galdu zen horregatik?”

“Hurrengo hartuko dut”.

“Hara! Hori bai adiskidetasuna”.

“Senideak zirela diotsut”.

“Hala da, zure amaren lehengusinak. Zure ekipajea itsasontzian zegoen?”

Gauzaren bat bai, baina gehiena hotelean”.

“Ikusten dut, baina seguru gertakari hau zela Plymouthen goizeko egunkarietan agertuko”.

“Ez, jauna; telegrama bat neukan”.

“Galdetu ahalko nuke ea noren partetik?”

Itzal bat agertu zen esploratzailearen aurpegi eromenean.

“Oso kuxkuxeroa zara, Holmes jauna”.

“Nire kontua da”.

Ahalegin pixka bat eginez, Sterndale medikuak berreskuratu egin zuen galdutako itxura.

“Ez daukat arazorik zuri kontatzeko” esan zuen. “Roundhay jauna apaizak bidali zidan telegrama”.

“Eskerrik asko” esan zuen Holmesek. “Zure galderari erantzun beharko nioke oraindik ez daukadala argi nor den kasuaren subjektua, baina esperantza daukadala ondorioren batera heltzeko. Goizegi litzateke zerbait esateko”.

“Agian ez litzaizuke axola zure susmoak nora doazen esatea?”

“Ez nuke jakingo hori erantzuten”.

“Orduan nire denbora alferrik galdu dut, eta ez dut nire bisita luzatu beharrik”. Mediku ospetsua umore txarrez atera zen gure etxetik, eta bost minutu beranduago Holmes haren atzetik joan zen. Ez nuen berriro ikusi arratsaldera arte; orduan, motel eta aurpegi nekatuz itzuli zen, eta horrek argi uzten zidan ez zuela aurrerapen handirik egin ikerketan. Zain zeukan telegramari begiratu eta tximeneara bota zuen.

“Plymoutheko hoteletik, Watson” esan zuen. “Apaizarengandik jakin nuen izena, eta telegrama bidali nuen ziurtatzeko Leon Sterndale medikuaren kontakizuna egia zen. Badirudi han igaro zuela bart gaua, eta bere ekipajearen zati bat Afrikara bidaltzen utzi duela, ikerketa honetan berriro presente egotera itzultzeko. Zer diozu horri, Watson?”

“Oso interesatua dago”.

“Oso interesatua, bai. Bada hemen oraindik atzeman ez dugun pista bat, labirinto honetan zehar gida gaitzakeena. Anima zaitetz, Watson, ziur bainago oraindik ez dugula beharrezko informazio guztia esku artean. Daukagunean, laster utziko ditugu atzean gure zailtasunak”.

Ez zitzaidan burutik pasa ere egin Holmesen hitzak hain laster beteko zirenik, ezta ikerketa-bide berri hura hain arraroa eta iluna izango zenik. Goizean leihoan bizarra kentzen ari nintzela, apatx hotsa entzun nuen, eta begiak altxatzean zalgurdi bat ikusi nuen, errepidean bera zihoala. Gure ate aurrean gelditu zen, eta gure lagun bikarioak jauzi egin eta lorategiko bidetik barrena sartu zen. Holmes jada jantzita zegoen, eta gu lasterka joan ginen bera agurtzera.

Gure bisitaria hain zegoen hunkituta, ia ezin zuela hitzik esan, baina azkenean, arnasestuka eta oihuka, bere istorio tragikoa kontatu zigun.

“Deabruak hartu gaitu, Holmes jauna! Deabruak dauka nire parrokia gaixoa!” esan zuen oihuka. “Satan bera dabil hemen aske! Haren mende gaude! Urduritasunez alde batetik bestera zebilen, ia barregarri, ez balitz bere aurpegi zurbila eta begi izutuengatik. Azkenean, albiste ikaragarria bota zuen.

“Mortimer Tregennis jauna gauean hil zen, bere familiako gainerakoen sintoma berdinekin”.

Holmes bat-batean zutitu zen, energiaz beterik.

“Biok sar gaitezke zalgurdian?”

“Bai”.

“Orduan gure gosaria atzeratuko dugu, Watson. Roundhay jauna zure esanetara gaude. Bizkor—bizkor, gauzak hankaz gora jarri aurretik”.

Maizterrak bi gela hartzen zituen bikariotzan, bazter batean, bata bestearen gainean. Behean egongela handi bat zegoen; goian, bere logela. Leihoek kroket zelaira ematen zuten. Medikua edo polizia baino lehenago iritsi ginen, eta dena bere horretan zegoen. Utzidazue eszena zehatz-mehatz deskribatzen, martxoko goiz lainotsu hartan ikusi genuen bezala. Inoiz ez zait burutik kenduko utzi didan inpresioa.

Gelan giro ikaragarri eta zapaltzailea zegoen. Lehen sartu zen morroiak leihoa zabal-zabalik zuen; bestela, giroa are jasangaitzagoa izango zen. Erdiko mahai gainean lanpara bat zegoen, piztuta eta kea zeriola. Haren ondoan zegoen hildakoa, aulkian etzanda, bizar mehea nabarmenduta, betaurrekoak bekokiraino igota, eta aurpegi ilun eta mehea leihora zuzenduta, ahizparen aurpegian geratu ziren izu-aztarnak bezain desitxuratua. Gorputz-adarrak gogortuta zituen eta bere behatzak bihurriturik, beldurrezko paroxismo batean hil balitz bezala. Erabat jantzita zegoen, nahiz eta presaka jantzi izanaren aztarnak egon. Bagenekien ohea desegina zuela eta amaiera tragikoa goizeko lehen orduetan iritsi zitzaioela.

Holmesen itxura lasaia eta hotza ezkututzen zuen energia sutsua nabarmendu zen, zorigaiztoko gelan sartu zen unetik bat-batean aldatu baitzen. Momentu batean urduri eta erne bihurtu zen, begiak distiratsu, aurpegia serio eta gorputz-adarrak dardarka egonezinez. Lorategira irten zen, leihotik sartu zen, gela zeharkatu eta logelara igo zen, harrapakin baten atzetik doan ehiztari fin baten antzera. Logelan, ingurura begiratu zuen bizkor eta leihoa zabal-zabal ireki zuen. Horrek beste asaldura-iturri bat eman ziola zirudien, interes eta harridurazko adierazpen batekin erantzun baitzuen. Gero eskaileretan behera korrika jaitsi zen, leiho irekitik irten, burua aurrera botata soropilera jauzi egin, eta berehala berriro gelara sartu zen, harrapakinari orpoz orpo jarraitzen dion ehiztariaren kemenarekin. Arretaz aztertu zuen lanpara, zutikako lanpara arrunta, pantailan neurri batzuk hartuz. Kontu handiz aztertu zuen lupaz tximiniaren goialdea estaltzen zuen talko-babesgarria, eta goiko azalari itsatsitako errauts batzuk karrakatu zituen; horietako batzuk karteran sartu eta han gorde zituen. Azkenean,

medikua eta polizia-agentea agertu zirenean, seinale bat egin zion bikarioari, eta hirurok lorategira irten ginen.

“Atsegin dut esatea nire ikerketa ez dela guztiz alferrikakoa izan” esan zuen. Ezin naiz poliziarekin zuzenean harremanetan jarri, baina eskertuko nizuke, Roundhay jauna, inspektoreari nire goraintziak helaraziko bazenizkio eta logelako leihoari eta egongelako lanparari arreta jartzeko esango bazenio. Horietako bakoitza argigarria da, eta elkarrekin ia erabakigarriak. Poliziak informazio gehiago nahi badu, pozik bidaliko nuke norbait landetxera. Eta orain, Watson, uste dut agian baliagarriagoa izango zaigula beste leku batera joatea”.

Beharbada polizia haserre zegoen zale baten esku-hartzeagatik, edo agian uste zuten etorkizun handiko arrasto baten atzetik zebiltzala; baina kontua da hurrengo bi egunetan ez genuela haien berririk izan. Denbora horretan, Holmesek bere denboraren zati bat erretzen eta pentsamendutan murgilduta eman zuen etxetxoan; baina gehiena landetan ibilaldiak egiten eman zuen, eta bakarrik joaten zen, ordu luzeen buruan itzuliz, egon zen tokiaz hitzik esan gabe. Esperimentu batek bere ikerketaren ildoak ulertzen lagundu zidan. Tragediaren goizean Mortimer Tregennisen gelan piztutako lanpara berbera erosi zuen. Erretore-etxean erabilitako olio berberaz bete zuen, eta kontu handiz neurtu zuen zenbat denbora behar zuen erretzeko. Egin zuen beste esperimentu bat desatseginagoa izan zen, eta ziur aski ez dut inoiz ahaztuko.

“Watson, gogoratuko duzu, iritsi zaizkigun txostenetan puntu komun bakarra dagoela” esan zuen arratsalde batean. Gelako giroak, kasu bakoitzean, lehen aldiz sartzen direnengan eragin bera izan du. Gogoan duzu Mortimer Tregennisek, anaiaren etxera egindako azken bisita kontatzean, esan zuela medikua, gelara sartzean, aulki batean erori zela? Ahaztuta zenuen? Ba nik ziurta dezaket hala izan zela. Nolanahi ere, gogoan izango duzu Porter andreak, etxeakoandreak, esan zigula bera ere konortea galdu zuela gelara sartu zenean, eta gero leihoa ireki zuela. Bigarren kasuan —Mortimer Tregennis berarena—, ezin ahaztu gelaren itolarri ikaragarria iritsi ginenean, nahiz eta neskameak leihoa zabal-zabalik eduki. Neskame hura, galdetzean jakin nuenez, hain zegoen gaixorik, non oheratu egin baitzen. Onartuko duzu, Watson, gertaera hauek oso argigarriak direla. Kasu bakoitzean atmosfera

pozoitsu baten zantzuak daude. Bi kasuetan, gainera, errekuntza dago gelan: batean su bat; bestean lanpara bat. Sua beharrezkoa zen, baina lanpara piztuta egon zen —erretako olioaren konparaketak erakutsiko duen bezala— egun osoa igaro eta askoz geroago arte. Zergatik? Zalantzarik gabe, hiru gauzaren arteko lotura dagoelako: errekuntza, giro itogarria eta, azkenik, zoritxarreko pertsona horien erokeria edo heriotza. Hori argi dago, ezta?”

“Hala dirudi”.

“Gutxienez, lan-hipotesi gisa onar dezakegu. Demagun kasu bakoitzean eragin toxiko arraroak sortzen zituen atmosfera eragin zuen zerbait erre zela. Oso ongi. Lehenengo kasuan —Tregennis familiarenean— substantzia hori sutara bota zen. Leihoa itxita zegoen, baina suak kea neurri batean tximiniarantz eramango zuen. Horregatik, espero liteke pozoia eragina bigarren kasuan baino txikiagoa izatea, lurrinak ihes egiteko aukera gutxiago baitzuen. Badirudi emaitzek hori bera adierazten dutela: lehenengo kasuan emakumea bakarrik hil zen, ustez gorputz ahulagoa zuena; gainerakoek, berriz, drogaren lehen efektua, aldi baterako edo betiko eromena, jasan zuten. Bigarren kasuan, emaitza erabatekoa izan zen. Beraz, badirudi gertakariak berretsi egiten dutela errekuntzaren bidez jarduten duen pozoia baten teoria”.

“Arrazoibide hori buruan nuela, Mortimer Tregennisen gelari begiratu nion, substantzia horren hondarren bat aurkitzeko. Talko-babesgarria eta lanpararen kearekiko estalkia ziren begiratzeko lekurik egokienak. Han, hain zuzen ere, errauts ezkatatsu batzuk ikusi nituen, eta ertzetan hauts marroiaren arrasto bat, oraindik erabat desegin gabea. Horren erdia hartu nuen, ikusi duzun bezala, eta gutun-azal batean gorde nuen”.

“Zergatik erdia, Holmes?”

“Ez dagokit niri, Watson maitea, poliziaren lanean sartzea. Aurkitu ditudan froga guztiak haien esku utziko ditut. Pozoia oraindik talkoaren gainean dago, aurkitzeko adina zorrotzak badira. Orain, Watson, gure lanpara piztuko dugu; baina leihoa irekiko dugu, bi laguneren heriotza goiztiarra saihesteko. Zu leiho ondoan eseriko zara, zentzuduna zaren aldetik... nahiz eta, noski, atzera egin nahi baduzu. Ai, geratuko zara, ezta? Banekien nire Watson ezagutzen

nuela. Aulki hau zure aurrean jarriko dut, pozoitik distantzia berean, aurrez aurre egon gaitezen. Atea erdi irekita utziko dugu. Horrela, bakoitzak bestea zaindu ahal izango du, sintomak larriak bihurtzen badira. Dena argi dago? Orduan, hautsa —edo geratzen dena— gutun-azaletik atera eta piztutako lanpararen gainean jarriko dut. Horrela! Orain, Watson, eseri gaitezen eta ikus dezagun zer gertatzen den”.

Berehala agertu ziren ondorioak. Aulkian eseri orduko, usain mehe, mehe eta nazkagarria sumatu nuen. Lehenengo arnasa hartzean, nire burua eta irudimena kontrolik gabe geratu ziren. Hodei beltz trinko bat zegoen nire begien aurrean, eta nire gogoak esaten zidan hodei hartan, artean ikusezina baina nire zentzumen beldurgarriei oldartzear, unibertso gauza lauso, munstro eta pentsaezinki gaizto guztien zelatan nengoela. Forma lausoak zurrunbilan eta igerian zebiltzan hodei ilunaren erdian, bakoitzak mehatxu bat eta hurbiltzen ari zen zerbaiten abisua, biztanle deskribaezinen baten etorrera atarira, zeinaren itzal hutsak arima suntsituko baitzidan. Izotz ikarak hartu ninduen. Ilea harrotzen ari zitzaidala sentitu nuen, begiak orbitetatik ateratzen zitzaizkidala, ahoa zabalik eta mihia larruzkoa bezala neukala. Nire burmuineko nahasmena hain zen handia, non zerbait hautsi beharra zegoen. Garrasi egiten saiatu nintzen, eta kirrinka lakar bat entzun nuen, nire ahots propioa, baina urrun eta neure baitatik urrun. Une horretan bertan, ihes egiteko ahaleginean, etsipenezko hodei hura zeharkatu, eta Holmesen aurpegia ikusi nuen, zurbil, zurrun eta izuak jota, hildakoen aurpegietan ikusi nuen aurpegi bera. Ikuspen horrek itzuli zizkidan une batez zuhurtzia eta indarra. Aulkitik jauzi batez jaiki, Holmes besoez inguratu eta elkarrekin atera ginen balantzaka atetik; handik pixka batera belarrera bota eta bata bestearen ondoan etzan ginen, inguratzen gintuen izu-hodei infernutsuan zehar zabaltzen zen eguzkiaren argi loriatsuaz bakarrik jabeturik. Poliki-poliki gure arimetatik desagertu zen, paisaia baten lainoa bezala, harik eta bakea eta arrazoimena itzuli ziren arte, eta belarretan eseri ginen, bekoki izerdituak lehortu eta presaka begiratzuz bizi izan genuen esperientzia izugarri haren azken arrastoak hautemateko.

“Jainkoarren, Watson!” esan zuen azkenean Holmesek, ahots dardartsuarekin, “Nire esker ona eta barkamena zor dizkizut. Esperimentu onartezina izan da, baita niretzat ere, eta are gehiago lagun batentzat. Benetan sentitzen dut”.

“Badakizu” erantzun nion hunkituta, inoiz ez bainuen Holmes hain bihotz-zabal ikusi, “plazer eta ohore handia da zuri laguntzea”.

Berehala hartu zuen, berriz ere, inguruan zitueneke bere ohiko jarreraren ezaugarri zen umorearen eta zinismoaren arteko erdibideko tonu hori. “Alferrikakoa litzateke erotzea, Watson maitea” esan zuen. “Behatzaile inpartzial batek baieztatuko zuen, zalantzarik gabe, hala geundela horrelako esperimentu burugabe batean sartu aurretik. Aitortzen dut ez nuela inoiz pentsatu efektua hain bat-batekoa eta latza izan zitekeenik”. Etxetxora sartu zen korrika, eta, kriseilua piztuta berriro agertu zenean, sasi artean bota zuen. “Denbora pixka bat eman behar dugu gela garbi dadin. Uste dut, Watson, ez duzula zalantza izpirik tragedia horiek nola gertatu ziren argitzeko?”.

“Bat ere ez”.

“Baina arrazoia oraindik lehen bezain iluna da. Sartu pergola honetan eta eztabaida dezagun elkarrekin. Substantzia nazkagarri hori eztarrian itsatsita dudala dirudi. Uste dut onartu behar dugula, froga guztien arabera, Mortimer Tregennis izan zela lehen tragediaren erruduna, nahiz eta bigarrenaren biktima izan. Lehenik, gogoratu behar dugu familiaren arteko liskar baten historia zegoela, eta gero adiskidetzea. Ez dakigu zein gogorra izan zen liskar hori, ezta adiskidetzea zein azalekoa izan zen ere. Mortimer Tregennisen aurpegia gogoratzen dudanean, maltzurra eta betaurrekoen atzean begi txiki, zorrotz eta distiratsuak zituela, ez zait iruditzen oso gizon bihozbera zenik. Tira, bestalde, gogoan izango duzu lorategian norbait mugitzen ari zela pentsatzeak une batez gure arreta tragediaren benetako arrazoitik aldendu zuela. Hori engainatzeko saiakera izan zen. Azkenik, substantzia sutara bota ez bazuen gelatik irtetean, nork bota zuen? Joan eta berehala gertatu zen. Beste inor sartu izan balitz, familiak, zalantzarik gabe, mahaitik altxatuko zen. Gainera, Kornualles lasaian ez zen bisitaririk izaten gaueko hamarretatik aurrera. Beraz, argi dago froga guztiek Mortimer Tregennis seinalatzen dutela errudun gisa”.

“Orduan bere heriotza suizidioa izan zen!”

“Beno, Watson, lehen begiratuan ez da ezinezkoa. Bere familiari halako patua eragin izana bere kontzientzian zeraman gizon batek damuak bere buruari ere min egitea erabaki zezakeen. Hala ere, aurkako arrazoi sendo batzuk ere badaude. Zorionez, Ingalaterran badago gizon bat gai honi buruz dena dakiena, eta gaur arratsaldean bere ahotik entzun ahal izateko hitzordua egin dut. Ah! Uste baino lehenago iritsi da. Agian, hemendik pasatzeko adeitasuna izango duzu, Leon Sterndale medikua. Esperimentu kimiko bat egiten aritu gara barruan, eta gure gela ez da oso egokia bisitari garrantzitsu bat hartzeko.

Lorategiko hesiaren zarata entzun nuen, eta bat-batean esploratzaile afrikar handiaren irudi dotorea agertu zen bide estuan. Apur bat harrituta, eserita geunden pergola eder horretara biratu zen.

“Deitu didazu, Holmes jauna. Duela ordubete jaso dut zure oharra, eta etorri naiz, baina egia esan ez dakit zergatik erantzun beharko niokeen zure deiari”.

“Agian kontu hau argitu ahal izango dugu agur esan baino lehen” esan zuen Holmesek. “Bitartean, eskerrik asko zure adeitasunagatik. Barkatu aire zabaleko harrera hau, baina nire lagun Watson eta biok kapitulu berri bat gehitzear gaude egunkariak “Kornuallesko izua” deitzen diotenari, eta nahiago dugu oraingoz aire garbia. Agian, eztabaidatu behar ditugun gaiak oso pertsonalak direnez, hobe dugu inork entzun gabe hitz egitea”.

Miatzaileak zigarroa ezpainetatik kendu eta zorrotz begiratu zion nire lagunari.

“Ez dakit zer pentsatu, jauna” esan zuen, “zertaz hitz egin nahi duzu nirekin hain modu pertsonal eta zuzenean?».

“Mortimer Tregennisen hilketak” esan zuen Holmesek.

Une batez armatuta egotea desiratu nuen. Sterndalen aurpegi ankerra gorri ilunez tindatu zen, begiak amorrus distiratsu, eta kopetan zain lodi eta tentsuak nabarmendu zitzaizkion, ukabilak estuturik nire lagunarengana oldartzen zen bitartean. Orduan gelditu

egin zen, eta ahalegin bortitz baten bidez, bere haserre-leherketa bera baino beldurgarriagoa zen lasaitasun hotz eta zurruna berreskuratu zuen.

“Hainbeste denbora bizi izan naiz basatien artean eta legearen mugetatik kanpo», esan zuen, “non neure buruari lege propio bat jarri diodan. On egingo lizuke, Holmes jauna, hori ez ahaztea, ez baitut kalterik egiteko asmorik”.

“Nik ere ez dizut kalterik egin nahi, Sterndale medikua. Froga argiena da, dakidana jakinda, zuri deitu dizudala eta ez poliziari”.

Sterndale hasperen batez eseri zen, agian bere lehen porrotaren aurrean. Holmesen jarreran lasaitasun eta segurtasun nagusi bat zegoen, saihestezina. Gure bisitaria une batez totelka aritu zen, eta bere esku handiak ireki eta ixten zituen urduritasunez.

“Zer esan nahi duzu?”, galdetu zuen azkenean. “Hau zure aldetik iruzur bat bada, Holmes jauna, gizon okerra aukeratu duzu zure esperimenterako. Ez dezagun gehiago bueltaka ibili. Zer esan nahi duzu?”.

“I will tell you” said Holmes, “and the reason why I tell you is that I hope frankness may beget frankness. What my next step may be will depend entirely upon the nature of your own defence.”

“Esango dizut”, esan zuen Holmesek, “eta horren arrazoia da zintzotasunak zintzotasuna ekartzen duela. Nire hurrengo urratsa zure defentsaren izaeraren araberakoa izango da erabat”.

“Nire defentsa?”

“Bai, jauna”.

“Zeren aurka defendatzeko?”

“Mortimer Tregennis hil izana leporatzen dizutelako”.

Sterndalek kopeta esku-zapiarekin garbitu zuen. “Benetan diotsut, aurrera zoaz” esan zuen. “Do all your successes depend upon this prodigious power of bluff?”

Sterndalek kopeta zapia eskuarekin garbitu zuen. «Benetan diotsut, aurrera zoaz», esan zuen. “Zure arrakasta osoa iruzur egiteko ahalmen izugarri horretan oinarritzen al da?”

“Iruzurra” esan zuen Holmesek zorrotz, “zure aldetik dago, Leon Sterndale medikua, eta ez nire aldetik. Froga gisa, nire ondorioak oinarritzen diren zenbait datu esango dizkizut. Plymouth-etik itzuli izana, eta zure ondasun asko Afrikara joaten utzi izana, ez dut aipatuko, salbu eta horrek lehen aldiz adierazi zidan zu ere kontuan hartu beharreko faktoreetako bat zarela drama hau berreraikitzerakoan—”.

“Itzuli nintzen—”

“Zure arrazoiak entzun ditut eta ez dut uste konbentzigarriak edo nahikoak direnik. Hori gaindituko dugu. Hona etorri zinen galdetzera nor susmatzen nuen. Nik erantzutea ukatu nizun. Orduan bikario-etxera joan zinen, han denbora batez kanpoan egon zinen, eta azkenean zure etxolara itzuli zinen”.

“Nola dakizu hori?”

“Jarraitu nizulako”.

“Ez nuen inor ikusi”.

“Horixe espero dezakezu zure atzetik noanean. Gau urduria igaro zenuen zure etxean, eta plan batzuk egin zenituen, goizean goiz burutu zenituenak. Atea eguna argitzen ari zuen

unean utzi eta patrikan hartxintzar gorritzat bat sartu zenuen, zure atearen ondoan pilatuta zegoena”.

Sterndalek astindu bortitza eman eta harrituta begiratu zion Holmesi.

“Ondoren, urrats arinez egin zenuen bikarriotzatik bereizten zintuen milia. Seinalatzen uzten badidazu, une honetan oinetan dituzun tenis-zapatila ildaskatu pare bera zeneraman. Bikarriotzan, baratzea eta alboko hesia zeharkatu eta Tregennis maizterraren leihoaren azpitik irten zinen. Eguna argitu zuen, baina etxean ez zen inor mugitzen. Legar pixka bat poltsikotik atera eta gainean zenuen leihora jaurti zenuen”.

Sterndale salto batez jarri zen zutik.

“Deabrua bera zarela uste dut!” oihukatu zuen.

Holmesek irribarre egin zuen laudorioen aurrean. “Bi eskukada behar izan ziren, edo agian hiru, maizterra leihora atera baino lehen. Jaisteko keinua egin zenion. Presaka jantzi eta egongelara jaitsi zen. Leihotik sartu zara. Elkarrizketa bat izan zen — laburra —, eta zu gelaren mutur batetik bestera ibili zinen. Gero irten eta leihoa itxi zuen, lorategian geratu zen zigarro bat erretzen eta gertatzen ari zenari begira. Azkenean, Tregennis hil ondoren, iritsi zinen bezala erretiratu zinen. Orain, Sterndale medikua, nola justifikatzen duzu jokabide hori eta zein izan ziren zure ekintzen arrazoiak? Iheskor bazabiltza edo nitaz trufatzen bazara, benetan diotsut arazoak eskuetatik ihes egingo didala betiko”.

Gure bisitariaren aurpegia errauts bihurtua zen salatzailearen hitzak entzuten zituen bitartean. Eserita geratu zen pixka batean, bere pentsamenduetan murgilduta, aurpegia esku artean zuela. Orduan, bat-bateko keinu oldartsu batez, bularreko poltsikotik argazki bat atera eta aurrean genuen landa-mahaira bota zuen.

“Arrazoi horrengatik egin nuen” esan zuen Sterndale medikuak.

Emakume eder baten bularra eta aurpegia erakusten zituen. Holmes bere gainera makurtu zen.

“Brenda Tregennis” esan zuen.

“Bai, Brenda Tregennis” , errepikatu zuen gure bisitariak. “Urteetan maitatu izan dut. Urteetan maite izan nau. Hor dago jendea hainbeste harritu duen Kornuallesko isolamendu horren sekretua. Munduan maite nuen gauza bakarrera hurbildu nau. Ezin izan nintzen berarekin ezkondu, emazte bat baitut, duela urte batzuk abandonatu ninduen, eta, hala ere, Ingalaterrako lege negargarriengatik, ezin izan nuena dibortziatu. Urteak eman zituen Brendak zain. Urteetan itxaron nuen. Eta hori da espero izan duguna”. Negar-zotin beldurgarri batek astindu zion gorputz handia, eta zintzurrari heldu zion bizar pikardatuaren azpian. Gero, ahalegin bat eginez, bere burua kontrolatu eta hizketan jarraitu zuen:

“Bikarioak bazekien. Haren esku utzi genuen kontua. Lurrean aingeru bat zela esango zion. Horregatik telegrama bat bidali zidan eta itzuli egin nintzen. Zer axola zuen nire ekipajeak edo Afrikak jakin nuenean patu hori nire maitearen gainera erori zela? Horra hor nire jarduna ulertzeko falta zen gakoa, Holmes jauna”.

“Jarraitu” esan zuen nire lagunak.

Sterndale medikuak paperezko gutun-azal bat poltsikotik atera eta mahai gainean utzi zuen. Kanpoaldean “Radix pedis diaboli” jartzen zuen, azpian pozoi etiketa gorria zuela. Hurbildu egin zidan. “Medikua zarela uste dut, jauna. Inoiz entzun al duzu prestakin honen berri?”.

«Deabruaren oin sustraia! Ez, ez dut inoiz haren berririk izan».

“Ez da zure ezagutza profesionalen aurkako kritika bat”, esan zuen, “Budaren laborategi bateko lagin bat izan ezik, European beste alerik ez dagoela uste baitut”. Oraindik ez da agertu ez farmakopean ez literatura toxikologikoan. Erroak oin forma du, erdi gizaki, erdi ahuntz;

hortik dator misiolari botaniko batek eman zion izen fantastikoa. Mendebaldeko Afrikako barruti batzuetako sendatzaileek probako pozoi gisa erabiltzen dute, eta isilpean gordetzen dute.

“Ale hori, zehazki, Ubangi eskualdean oso ohiz kanpoko baldintzetan lortu nuen”. Hizketan ari zela, papera ireki eta hauts marroi gorritzat bat utzi zuen agerian, murtxikatzekeo tabakoaren antzekoa.

“Zer diozu, jauna?” galdetu zuen Sherlock Holmesek, zorrotz.

“Benetan gertatu zen guztia kontatzekotan nago, Holmes jauna; hainbeste dakizuenez, hobe da dena jakitea. Azaldu dizut Tregennis familiarekin nuen harremana. Arrebaren mesedetan, ongi moldatzen nintzen anaiekin. Familiako liskar batek Mortimer urrundu zuen, baina gero adiskidetu egin zirela uste zen, eta nik ere haiekin harremana berreskuratu nuen, besteekin bezala. Gizon trebea eta maltzurra zen, eta susmoak piztu zizkidaten hainbat gauza gertatu ziren, baina ez neukan eztabaida zehatzik hasteko arrazoirik”.

“Egun batean, duela aste pare bat bakarrik, nire etxetxora etorri zen eta nire Afrikako bitxikerietako batzuk erakutsi nizkion. Besteak beste, hauts hori erakutsi nion, eta bere propietate arraroez hitz egin nion, nola estimulatu dituen beldurraren emozioa kontrolatzen duten garuneko zentroak, eta nola eromena edo heriotza diren bere tribuko apaizak frogatutako zorigaitzoko jaioberriaren patua. Esan nion, halaber, zein ezgauza izango zen Europako zientzia hori detektatzeko. Ezin dut esan nola hartu zuen, ez bainintzen inoiz gelatik irten, baina ez dago zalantzarik orduan izan zela, armairuak ireki eta kaxak ateratzeko makurtu nintzen bitartean, berak deabruarengandik oin pixka bat kentzeko moldatu zenean. Gogoan dut nola garrastu ninduen eragina izateko zenbat eta zenbat denbora behar zen galdetzean, baina ez zitzaidan burutik pasatu ere egin galdetzeko arrazoi pertsonal bat izan nezakeenik”.

“Ez nuen gehiago pentsatu gaiaz, harik eta Plymouthera iritsi zitzaidan bikarioaren telegrama jaso nuen arte. Gaizkile honek pentsatu zuen ni itsasoan egongo nintzela albistea iritsi aurretik, eta Afrikan galdua izango nintzela urte luzez. Baina berehala itzuli nintzen. Jakina, ezin nituen xehetasunak entzun nire pozoia erabili zutela ziurtasun osoz sentitu gabe. Zuregana etorri nintzen, agian zuk beste azalpen bat aurkitu zenuelakoan. Baina ez zegoen halakorik. Konbentzituta nengoen Mortimer Tregennis zela hiltzailea; diruagatik, eta agian bere familiako gainerako kideak erotuta bazeuden haien ondasunen zaintzaile bakarra izango zelakoan, deabruaren oinaren hautsa erabili zuela haien aurka, bi erotu eta bere arreba Brenda hil zuela, inoiz maite izan dudan edo maite izan nauen gizaki bakarra. Hori zen bere krimena; eta zein izango zen bere zigorra?”

“Justiziara jo behar al nuen? Non zeuden nire frogak? Banekien gertaerak egiazkoak zirela, baina konbentzitu al nezakeen herrikide-epaimahai bat hain istorio zoragarria sinets zezan? Agian bai, agian ez. Baina ezin nuen huts egin. Nire arimak mendekua oihukatzen zuen. Esan dizut, Holmes jauna, nire bizitzaren zati handi bat legetik kanpo eman dudala, eta azkenean neure legea izan naizela. Horrela izan zen oraingo honetan ere. Berak beste batzuei ezarritako patuak berea izan behar zuela erabaki nuen. Edo hori, edo justizia egingo nuke nire eskuekin. Ingalaterra osoan ezin da egon bere bizitza une honetan nik baino gutxiago baloratzen duen gizonik”.

“Orain dena kontatu dizut. Zuk zeuk osatu duzu gainerakoa. Esan bezala, lo egin gabeko gau baten ondoren, goiz irten nintzen nire etxolatik. Espero nuen esnatzea zaila izango zela. Hartxintzar pixka bat hartu nuen aipatu duzun pilotik eta bere leihoaren kontra bota nuen. Jaitsi eta egongelako leihotik sartzen utzi zidan. Bere delitua azaldu nion. Epaille eta borrero gisa etorri nintzela esan nion. Dohakabea aulki batean hondoratu zen, nire errebolberraren aurrean geldirik. Kriseilua piztu, bolbora gainean jarri eta leihotik kanpo geratu nintzen, gelatik irteten saiatuz gero tiro egiteko mehatxua betetzeko prest. Bost minutu barru hil zen. Ene Jainkoa! Nola hil zen! Baina bihotza harrizkoa nuen, ez baitzuen ezer jasan, nire maite errugabeak bera baino lehen sentituko ez zukeenik. Hau da nire istorioa, Holmes jauna. Agian, emakume bat maite izan bazenu, gauza bera egingo zenukeen. Nolanahi ere, zuen

esku nago. Nahi dituzun neurriak har ditzakezu. Esan dudan bezala, ez dago gizonik heriotza nik baino gutxiago merezi duenik”.

Holmes isilik egon zen tarte batez. “Zein zen zure asmoa?” galdetu zuen azkenean.

“Afrika erdialdean neure burua lurperatzeko asmoa nuen. Han egindako lana erdi eginda besterik ez dago”.

“Zoaz eta egin beste erdia” esan zuen Holmesek. “Ni, behintzat, ez nago prest zu geldiarazteko”.

Sterndale medikuak bere gorputz handia altxatu, agurtu eta alde egin zuen pergolatik. Holmesek pipa piztu eta tabako-poltsa eman zidan.

“Pozoitsuak ez diren ke batzuk aldaketa atsegina izango lirateke” esan zuen Holmesek. “Uste dut ados egongo zarela, Watson, kasu honetan ez dugula esku hartu behar. Gure ikerketa independientea izan da, eta gure ekintzak ere halakoak izango dira. Ez zenuke gizona salatuko?”

“Jakina ezetz” erantzun nuen.

“Ez dut inoiz maitatu, Watson, baina maitatu izan banu eta maite nuen emakumeak horrelako amaiera izan balu, gure legeetatik kanpoko lehoi-ehiztariak bezala jokatuko nukeen. Nork daki? Tira, Watson, ez dut zure adimena iraindu nahi agerikoa dena azalduz. Leiho-ertzeko harritxoak izan ziren nire ikerketaren hasiera. Ez zuen bikario-etxeko lorategian zegoenaren antzik. Nire arreta Sterndale medikuarengan eta haren etxetxoan jarri nuenean bakarrik aurkitu nuen haren baliokidea. Egun argiz piztuta zegoen lanpara eta talkoaren hondarrak lotura argiak izan ziren. Eta orain, Watson maitea, uste dut gaia gure burutik baztertu eta kontzientzia garbiz itzul gaitzekela Kaldear erroen azterketara, kornubieraren adarrean”.